

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**22/2026 Foru Agindua, urriaren 23koa. Onespena ematea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak Arabako Lurralde Historikoko 350 biztanletik beherako udalei eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioa egiteko 2026an norgehiagoka bidez emango dizkien dirulaguntzen deialdiari**

Kontzejuen martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauak 42. artikuluan ezartzen du Arabako kontzejuek betebeharra dutela beren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egiteko, edozein izanik ere haien izaera edo eskuratu ziren modua.

Bigarren apartatuan xedatzen du Arabako Foru Aldundiak inbentario horiek egiteko bitarteko egokiez hornituko dituela.

Bestalde, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak arautzen du udalek ere beren ondasunen inbentarioak egin behar dituztela.

Dokumentu horiek osatzen laguntzeko dirulaguntza emango die foru sail honek. Dirulaguntzen xedea da, hain zuzen, toki erakundeei laguntzea inbentarioak egiteak dakartzan gastuei aurre egiten.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 39/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren (2018ko abuztuaren 20ko ALHAO, 95. zenbaki) Arabako Lurralde Historikoko udal eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorrak, eta deialdi hau oinarri horien arabera arautzen da.

Oinarri orokorren bidez, objektibotasun, lehia eta publikotasun printzipioak betetzen dira, eta Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean jasotakoa ere aplikatzen da, tokiko erakundeei beren ondasun inbentarioak egiteko ematen zaizkien laguntzak arautzean.

Horregatik guztiagatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea ondasunen inbentarioak egiteko Arabako Lurralde Historikoko 350 biztanletik beherako udalantzako eta kontzejuentzako dirulaguntzen 2026. urterako deialdia, 100.000,00 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko horretatik, 80.000,00 euro kontzejuentzako izango dira, eta 20.000,00 euro udalantzako, foru agindu honekin batera doan deialdiaren eranskinean ezarritakoaren arabera.

Hala ere, hasierako zenbatekoa handitu ahal izango da, deialdiko laguntza lerroetako batean ekitaldi berean soberakinik izanez gero. Deialdiaren zenbatekoa gehienez ere ehuneko 40 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe.

Bigarrena. Abuztuaren 3ko Foru Gobernu Kontseiluaren 39/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri orokor arautzaileek (2018ko abuztuaren 20ko ALHAO, 95. zenbakia.) arautzen dute deialdi hau, eta, beraz, ez da beharrezkoa espediente honi eranstea.

Hirugarrena. Eman beharreko dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2026rako gastuen aurrekontuko 10202. G/922100/76800104 "Ondasunen inbentarioa egitea" aurrekontu partidaren kontura finantzatuko dira.

Laugarrena. Foru agindu hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzietarako errekurtoa jarri ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, administrazio egintza hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, bat etorriaz jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan araututakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko urtarrilaren 23a

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua*  
**LAURA PÉREZ BORINAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*  
**JAVIER GORBEÑA GARCÍA**

## ERANSKINA

**Onespena ematea Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak Arabako Lurralde Historikoko 350 biztanletik beherako udalei eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioa egiteko 2026an norgehiagoka bidez emango dizkien dirulaguntzen deialdiari**

### 1. Deialdiaren xedea

Arabako 350 biztanletik beherako udalek eta kontzejuek haien ondasunen inbentarioak egiteak eragindako gastuak finantzatzen laguntzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3ko 39/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren (2018ko abuztuaren 20ko ALHAO, 95. zenbakia.) Arabako Lurralde Historikoko udal eta kontzejuei beren ondasunen inbentarioak egiteko ematen zaizkien dirulaguntzen emakida arautzen duten oinarri orokorrak.

### 2. Erakunde onuradunak

Onuradun izan daitezke deialdi honetako baldintzak betetzen dituzten Arabako udalak eta kontzejuek.

Era berean, kontuan hartuko dira aurreko aldietan zenbait kontzejuk batera aurkeztutako eskaerak.

### 3. Dirulaguntzen xedea

a) Adierazitako ondasunen inbentarioak egitea.

Inbentarioan, berezita jaso behar dira ondareko ondasun guztiak, ondarekoak zein jabari publikokoak izan, eta epigrafe hauen arabera multzokatu behar dira:

- Ondasun higiezinak (landa eta hiri finkak, eraikinak, bide publikoak-bideak, kaleak, plazak, parkeak eta abar).
- Eskubide errealak.
- Ondasun higigarri historiko, artistiko eta balio ekonomiko handikoak.
- Korporazioaren balio higigarri, kreditu eta eskubide pertsonalak.
- Ibilgailuak.
- Azienda.
- Aurreko epigrafe horietan sartzan ez diren higigarriak.
- Ondasun eta eskubide itzulgarriak.

b) Inbentarioan jasotako ondasun higiezinak Jabetza Erregistroan inskribatzea.

#### 4. Dirulaguntzen zenbatekoa

Inbentarioa egitearen eta Jabetza Erregistroan inskribatzearen kostuaren arabera izango dira dirulaguntzak; edonola ere, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailaren ekarpena ezingo da izan erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 80 baino gehiago.

Dirulaguntza zenbatekoa izango den behin betiko finkatzeko, lizitazioan aurkeztu diren proposamen guztien artean ekonomiaren aldetik abantailatsuenari dagokion dirulaguntza ehuneko aplikatuko da, kontuan hartu gabe toki erakundeak azkenean zein esleitzen duen.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoak ezingo du gaintitu, laugarren oinarri honen azken paragrafoan xedatutakoa salbu, Arabako Foru Aldundiaren 2026rako gastuen aurrekontuko 10202. G/922100/76800104 "Ondasunen inbentarioa egitea" aurrekontu partidaren horretarako gaitutako 100.000,00 euroko kopurua.

Aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 80 lagunduko da diruz gehienez, eta udal edo kontzeju bakoitzeko zenbateko osoa ezingo da 7.500,00 euro baino gehiago izan.

Hasieran batean, 80.000,00 euro izango dira kontzejuentzako eta 20.000,00 euro udalentzako.

Deialdiko laguntza lerroetako batean soberakinak sortuz gero, beste lerroa handitu ahal izango da ekitaldi berean.

Deialdiaren zenbatekoa gehienez ere ehuneko 40 handitu ahal izango da, beste deialdi bat egin beharrik izan gabe.

#### 5. Eskaerak aurkezteko epea eta modua

Eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea izango da, foru agindua eta deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Dirulaguntza mota hau jaso nahi duten erakundeek, eskaera aurkezteaz gain, inbentarioa egiteak eta Jabetza Erregistroan inskribatzeak dakarten kostu ekonomikoaren aurrekontu bat aurkeztu beharko dute.

Eskaerak telematikoki aurkeztu behar dira, egoitza elektronikoa hasitako berriazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/elaboracion-de-los-inventarios-de-bienes-de-las-entidades-locales-de-alava?redirect=%20por%20ciento2Fes%20por%20ciento2Finicio%20por%20ciento2Ftramites>).

Aurkeztutako eskaerak ez badituzte adierazitako baldintzak betetzen, Lurralde Orekaren Zuzendaritzak hamar eguneko epea emango die interesdunei hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta hala egin ezean, artxibatu egingo da eskaera, ulertuko baita atzera egin dutela eskaeran.

#### 6. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

1. Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuak du espedientearen instrukzioa egiteko eskumena.

2. Balioespen irizpideak.

Ezin badira aurkeztutako eskaera guztiak hornitu aurrekontu esleipenarekin, honako lehen-tasan irizpide hauei jarraituko zaie diruz lagunduko diren lanak hautatzeko:

1) Kontzejuak:

a) Azken lau deialdietan dirulaguntza lerro honetara aurkeztu izana, deialdi horietan inolako laguntzarik jaso gabe: 45 puntu.

b) Kontzejuak itxitako azken ekitaldian izandako diru sarrerak biztanle kopuruaren artean zatituta ateratzen den ratioaren alderantzizkoa; 35 puntu emango dira, formula honen arabera:

$P_i$  = Kontzeju bakoitzari esleitutako puntuak.

$R_i$  = Balioesten den kontzejuaren ratioa.

$R_b$  = Biztanleko diru sarrera txikiena duen kontzejuaren ratioa.

Formula aplikatzearen ondorioz biztanle bakoitzeko 250,00 eurotik beherako kopurua lortzen bada, beheko muga azken hori izango da.

c) Udalerrri bereko zenbait kontzejuk elkarrekin aurkeztea eskaera: 10 puntu.

d) Zenbait herrigunetako kontzeju batek aurkeztutako eskaerak: 10 puntu.

2) Udalak:

a) Udalerrriak itxitako azken ekitaldian izandako diru sarrerak biztanle kopuruaren artean zatituta ateratzen den ratioaren alderantzizkoa; 100 puntu emango dira, formula honen arabera:

$P_i$  = Udal bakoitzari esleitutako puntuak.

$R_i$  = Balioesten den udalaren ratioa.

$R_b$  = Biztanleko diru sarrera txikiena duen udalaren ratioa.

Erakunde eskatzaileen artean puntu berdinketarik badago, berdinketa hausteko honako irizpide hauek erabiliko dira, hurrenkera honetan:

1) Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren oinarritzko tartearen esleipena jasotzen duen kontzejuaren edo udalaren zerbitzu kopuru handiagoa.

2) Biztanle kopuru handiagoa, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren azken banaketa egiteko erabilitako datuen arabera.

### **7. Dirulaguntzaren muga**

Emandako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan onuradunak bere lana egiteak izan duen kostua baino handiagoa, jasotako beste dirulaguntza batzuk ere kontuan hartuta.

### **8. Ebazpena**

1. Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

2. Balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzordearen osaera: Lurralde Oreakaren Zuzendaria batzordeburua izango da; Lurralde Oreakaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat izango da batzordekidea, eta idazkari lanetan Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuaren burua arituko da.

Lurralde Oreakaren eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, egoki deritzen kasuetan, aukeran izango du aurkeztutako agiriei buruzko datuak eta azalpenak eskatzea. Espedientea atzeratu, eta are artxibatu ere egin daiteke, datu edo azalpen horiek ez badira bideratzen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezartzen dituen epeetan.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera alderatu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du ebaluazioaren emaitza jasotzeko, eta, beharrezkoa bada, eskaeren arteko lehentasuna ezarriko du.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik; izan ere, erakunde onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak bakarrik hartuko dira kontuan ebazpenean.

4. Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bidezkoa den ebazpena emango du, sei hilabeteko epean gehienez, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, erakunde onuradunek ezetsizat jo beharko dute eskaera.

5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu, dagokion foru aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

6. Dirulaguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da dirulaguntza zer erakunde onuraduni eman zaion, eta berariaz adierazi beharko da gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

7. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean ez gauzatzearen ondorioak. Toki erakundeak dagokion kontratua esleitzen duenean, esleitutako dirulaguntza osoa ordaindu ahal izango da aurrerakin edo konturako entrega gisa.

8. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

9. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, nahi izanez gero berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

10. Erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko eginez gero, zortzigarren oinarri honetako bigarren apartatuan adierazitako lehentasun hurrenkeraren arabera hurrengo toki erakundeei eman ahal izango zaie dirulaguntza, deialdiari azkenean esleitutako zenbateko ekonomikoaren mugara iritsi arte.

### **9. Esleipena eta baldintzen agiria**

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak ondasunen inbentarioa egiteko lanak adjudikatuko ditu, bat etorritik Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoarekin. Horretarako, aldundiak baldintza administratibo eta teknikoaren agiriaren eredu bat jarriko du erakunde onuradunen eskura, eta eredu hori erreferentziazat hartu ahal izango da.

### **10. Dirulaguntzak ordaintzea eta justifikatzea**

Ordainketa izendunak egingo zaizkio erakunde onuradun bakoitzari.

Dirulaguntzen zenbateko osoa bi ordainketatan ordainduko da (ehuneko 70 eta ehuneko 30) justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Toki erakunde onuradunak zerbitzu kontratua aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 70.

Dirulaguntzaren bi ordainketa partzialen justifikazioa justifikazio kontu erraztua izango da, eta dirulaguntza jasotzen duten toki erakundeek honako epemuga hauetan eta dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko dute:

Dirulaguntzaren lehen ordainketa (ehuneko 70) justifikatzeko, justifikazio kontu partziala 2026ko azaroaren 15a baino lehen bidali beharko da, eta hauek izan beharko ditu:

a) Diruz lagundutako jarduera egitean izandako gastuen zerrenda sailkatua. Zerrenda horrek gastu bakoitzari buruzko honako datu hauek jaso behar ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data.

b) Egindako gastua egiaztatzen duten fakturak eta haien ordainagiriak.

Fakturretako eta ordainketen justifikazio agirietako zenbatekoa dirulaguntza osoa zehazteko kontuan hartutako gastuen ehuneko 70 izan behar da gutxienez.

Bigarren ordainketa ere, dirulaguntzaren gainerako ehuneko 30ekoa, aurrerakin gisa ordainduko da, betiere lehenengo ordainketa behar bezala justifikatu bada.

Dirulaguntzaren ehuneko 30eko bigarren ordainketa justifikatzeko, azken justifikazio kontua 2027ko martxoaren 31n aurkeztu behar da, beranduenez, eta dirulaguntzaren xede den zerbitzu emate osoari buruzkoa izan behar da. Hauek dira aurkeztu behar diren agiriak:

a) Diruz lagundutako ondasunen inbentarioaren ale bat eta, hala badagokio, Jabetza Erregistroan inskribatutako ondasun higiezinaren justifikazioa.

b) Diruz lagundutako jarduera egitean izandako gastu guztien zerrenda sailkatua. Zerrenda horrek gastu bakoitzari buruzko honako datu hauek jaso behar ditu: gastuen agiriaren edo fakturaren zenbakia, hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data.

c) Egindako gastua egiaztatzen duten fakturak eta haien ordainagiriak.

d) Burututako jardueren azken memoria zehatza eta azalpenezkoa.

e) Lehen ordainketaren justifikazioan aurkezteke zeuden ordainagiriak.

f) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarreraren eta jasotako edo eskatutako dirulaguntzen xehetasuna, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

g) Hala behar denean, aplikatu ez diren geldikinak eta haietatik sortutako interesak itzultzeko ordainketa gutuna.

#### **11. Informazioa emateko betebeharrak**

Erakunde onuraduna behartuta dago Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuek eskatzen dioten informazio guztia ematera.

#### **12. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa bererako emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gainditzen ez badu.

Erakunde onuradunak jakinarazi egin behar dio dirulaguntza ematen duen organoari helburu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk eskuratu dituela edo eskuratzeko eskaera egin duela, izan estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo entitate publikok emandakoak edo izan edozein entitate edo erakunde pribatuk emandakoak.

Ezingo dira dirulaguntza honen onuradun izan aurreko hamar urteetan onuradun izan diren kontzejuak.

#### **13. Dirulaguntza galtzea**

Onuradunek deialdi honetan esleitu zaizkien dirulaguntzak galdu ahal izango dituzte, aldez aurretik espedientea hasita, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezarritako kasuetan.

Espediente baten ondorioz dirulaguntza galduz gero, lehen aipatutako xedapenetan ezarritako zehapen araubidea aplikatuko da.

**14. Publizitatea**

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

**15. Errekurtsoak**

Deialdi honen aurka zein beronen ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen legeek ezarritako kasuetan eta eran.

**16. Azken klausula**

Oinarri hauek xedatu gabekoetan Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauak eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak arautzen dutena ezarriko da, bai eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoa ere.